

OSTEGUNA

2019/05/02
7.urtea, 1.049. zenbakia
107.6 fm

www.ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

Bihar, Gaztelun elkartzeko deia egin dute

Goikoetxea herritarraren atxiloketa dela eta, osoko bilkura egin zuten elkarretaratzerara deituz // **5**



LARRAITZ ABEREAk ARALARRERA

Larre irekiera festak egin zituzten, atzo, Larraitzen eta Komizarren; Jojo Goienetx Garaziko Mendietako Elkargoko lehendakariak ireki zuen Aralarko langa // **4-5**

Bertsolamintza jardunaldiei hasiera emango zaie, gaur

Bertsozale Elkarteak bost saiotan banatu ditu jardunaldiak, eta Iruñean izango da lehena; Amaia Agirrek eskainiko du hitzaldia // **2**

Leaburu-Txaramako Udalak etxebizitzetxei begira egin du lana

Zortzi urteren ondoren, hutsetik hasita, onartu dute plan orokorra; babes ofizialeko etxeez gain, baserri eta etxe hutsei jarri diete arreta // **3**

IRATI: SAIZAR ARTOLA

aduna
garden

Landareak
Lorezaintza
Baratzea
eta gehiago

Maiatzak 3
IREKITZEN DUGU!

Zubitxiki, 17
20150 Aduna / Gipuzkoa
www.adunagarden.com

Etxebizitzetan birgaitze energetikoa sustatzeko saioa

AMASA-VILLABONA // Amasa-Villabonako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako departamentuarekin elkarlanean, *Gipuzkoa Argitu* programaren barruan, etxebizitzetan birgaitze energetikoa sustatzera eta bide batez, herritarren bizi kalitatea hobetzera zuzendutako doako tailerra antolatu du. Hilaren 8an, 18:00etan, Subijana etxean izango da. Tailer hauetan parte hartu nahi duten herritarrek, hilaren 6a baino lehen izena ematea beharrezkoa da.

Gizarte-bonuari buruzko azalpenak emateko, tailerra

AMASA-VILLABONA // Kontsumobidek eta Tolosaldeko Kiubak, Villabonako Udalaren Gizarte zerbitzuekin batera gizarte-bonuari buruzko prestakuntza tailerra antolatu dute. Maiatzaren 6an, 17:00etan egingo da Villabonako Subijana etxearen areto nagusian. Tailerraren helburua informazioa ematea da, eta nork eska dezakeen gizarte-bonua eta nola eskatu azalduko da. Ordubete inguruko iraupena izango du.

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintzak

Zerbitzaria. Zerbitzari bat behar da Tolosaldeko taberna baterako. Telefonoa: 647 446 363.

Operadorea. Logikaline enpresak teleoperadora lanpostu bat bete behar du. Lana Abaltzisketan egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera, euskara eta ingelesa eskatzen dira. Lanaldi osoa. Bidali c.v. rrhh@logikaline.com edo deitu 943 3186 06.

Gaur hasiko dira bertsolaritzari buruzko jardunaldiak

Gaur emango diete hasiera Bertsolamintza jardunaldiei, Iruñean; Amaia Agirrek emango du lehen hitzaldia

Eneritz Maiz Etxarri

Euskal Herriko Bertsozale Elkar-teak Bertsolamintza jardunaldiak antolatu ditu. Bost saiotan banatu ditu, eta lehena gaur bertan izango da Iruñean. Sustrai Colina eta Amaia Agirre bertsolariak hitzaldi bana eskainiko dute. Parte hartzea doakoa bada ere, beharrezkoa da aldeztu aurretik izena ematea saio guztietarako.

1994, 2002, 2005 eta 2011 urteetan eginak dituzte Bertsolamintza jardunaldiak. Bertsogintzari buruzko gogoeta sustatzea dute helburu: «Bertsogintzaren bueltako gaien inguruan hitzaldiak entzun eta ekarpenak partekatze plaza dira saioak».

Lehen lau saioetan bina hitzaldi entzuteko aukera izango da, eta, ondoren, mahai-ingurua. Bertaratzen direnei parte hartzeko aukera irekiko zaie. Bilbokoa mahai-ingurua izango da, eta azkena, ekainaren lehen izango da Amasa-Villabonako Subijana etxean. Bertan, aurreko egunean entzundako ideiak eta ondorioak ekarriko dituzte gogora, jardunaldiei amaiera emateko.

BAZKALTZEKO AUKERA

Azken saio honen ondotik, Amasako Uxo Toki elkartean bazkaltzen geratzeko aukera izango da aurrez izena emanez gero. Maiatzaren 24an amaituko da epea, eta 12 euro ordaindu beharko ditu bazkaltzen geratu nahi duenak.



«Niretzat konpartitze hutsa erabat aberasgarria da»

AMAIA AGIRRE ARRASTOA BERTSOLARIA ETA GAI JARTZAILEA

E. M. Amasa-Villabona

Gaur, Iruñeako Zaldiko Maldiko elkartean *Saio-formatuen inertzia* hitzaldia emango du.

Zeintzuk dira hitzaldian jorrratuko dituzun inertzia?

Gai jartzaile ikuspegia eta bertsolari ikuspegia, biak uztartzen saiatuko naiz. Bertso saioaren eskaletan, egituraren edo formatuaren, bertsolariaren nola eragin dezakeen gai jartzaileen aukerak eta inertzia, eta era berean, bertsolariaren lekutik gai jartzaileen inertzia horiek saio batean edo beraiengan nola eragiten duten.

Zein mezu eman nahi duzu?

Nik nire esperientzia kontatuz, hausnarketarako balioko lukeen galdera ikur batzuk airean uztea da lortu nahiko nukeena. Autokritika ere egin nahiko nuke, bai gai jartzaile lekutik eta baita bertsolari lekutik ere. Kritika konstruktiboa esango nuke, hau da, badaude gauza batzuk nire ustez hobetu daitezkeenak. Askotan, oraindik ere, nahiz eta gai jartzailea izan entzulearen eta bertsolariaren arteko zubi lana egiten duena, askotan zubi lan hori falta da bertsolariaren eta gai jartzailearen artean.

Ildo horri tira nahiko nioke. Inertzia izango da abiapuntua, baina gero, ildo nagusia gai jartzaile eta bertsolariaren arteko zubi lan hori nola sendotu eta nola indartu daitekeen izango da. Hor gabeziak ikusten ditut, eta elkarri nola eragiten diogun izango da helburu nagusia. Inertzia abiapuntu hartuta, inertzia horiek zertan eragiten duten gure arteko harremanean. **Berrikuntza beharra ikusten duzu?**

Bertso saio baten puzzlea nahiko itxia dela esango nuke. Mugimendu askotarako aukerarik ez dago, baina badaude aukerak. Bakoitzak zein arrisku hartu nahi dituen, eta arrisku horiek zein ondorio ekar ditzaketen neurtu behar du. Nik uste dut badagoela zer aldatua, baina konpartitua izan behar duela iruditzen zait. Berritzaileak bai, baina oraindik ere kontserbadoreak bagarela uste dut. Oraindik ere, plaza askok, egitura hori oinarri hartuta, hori eskatzen dute. Nik tematika aldetik ikusten dut aldaketa errazagoa, egituratik baino.

Garrantzitsuak dira Bertsolamintza moduko jardunaldiak?

Aberasgarria dela iruditzen zait. Bereiziki, arlo ezberdinetan gabiltzanok edo zerbait landu dugunok paperean jartzeko gure ideiak; eta hausnarketarako bidea emateko eta konpartitzeko. Bestela, askotan, bakoitza bere lanean ari da eta, esaterako, gai jartzaileak oso-oso lan bakartia da txapelketatik kanpora. Honek ematen du bidea, buruan bueltak darabilzkgigun ideiak, zalan-tzak eta beldurak plazaratzeko eta konpartitzeko.

Niri besteen testuek eta iritziek on egiten didaten moduan, espero, nik ere norbaiti pistaren bat edo ematea, edota kontrako iritziren bat emateko bidea irekitzea, ikuspegi ezberdin bat azaltzeko. Niretzat konpartitze hutsa erabat aberasgarria da.

EGITARAUA

Maiatzak 2, Iruñea

18:30. Politikoki zuzena denaren eta transgresioaren arteko talka, Sustrai Colina. *Saio-formatuen inertzia*, Amaia Agirre. Aurkezle-moderatzailea: Saioa Alkaiza. Zaldiko Maldiko elkartea.

Maiatzak 16, Senpere

18:30. Zer kantatzen diogu eta zeri kantatu nahiko genioke? Zein da gaur egungo errealitatea?, Amets Arzallus. *Hizkuntza ideologiak bertsolaritzan*, Miren Artetxe. Aurkezle-moderatzailea: Xumai Murua. Laralde etxea.

Maiatzak 22, Bilbo

18:30. Bertsolari gazteek zer berri?, mahai-ingurua. Joanes Illarregi, Jokin

Bergara, Maider Arregi. Aurkezle-moderatzailea: Ane Zuazubiskar. Bira Kultur Gunea.

Maiatzak 23, Gasteiz

18:30. Feminismoa eta bertsolariaren arteko talka, Maite Berriozabal. *Nola sortzen da bertsolari buruzko iritzi publikoa?*, Xabier Aierdi. Aurkezle-moderatzailea: Ainhoa Aizpurua. Amaia Zentroa.

Ekainak 1, Amasa-Villabona

09:00. Ongietorria eta aurkezpena. Beñat Gaztelumendi. **09:20.** Zer kantatzen diogu eta zeri kantatu nahiko genioke? Zein da gaur egungo errealitatea? Amets Arzallus **09:45.** Politikoki zuzena denaren eta

transgresioaren arteko talka. Sustrai Colina

10:10. Feminismoa eta bertsolariaren arteko talka, Maite Berriozabal.

10:35. *Saio-formatuen inertzia.* Amaia Agirre

10:50. Lau hizlariekin mahai-ingurua. Moderatzailea: Maddi Sarasua.

11:30. Atsedendia.

11:50. *Hizkuntza ideologiak bertsolaritzan.* Miren Artetxe.

12:15. Bertsolari gazteek zer berri? Asier Galarza eta Eli Pagola.

12:40. *Nola sortzen da bertsolari buruzko iritzi publikoa?* Xabier Aierdi.

13:05. Hiru hizlariekin mahai-ingurua. Moderatzailea: Ainhoa Aizpurua

13:45. Jardunaldien itxiera: Jone Uria.



Plan Orokorra onartu dute

Etxebizitzetan jarri dituzte begiak Leaburu-Txaraman. HAPO onartu ondoren, etxebizitza berriak egin eta baserri hutsak berritzeko oinarriak zehaztu dituzte

Irati Saizar Leaburu-Txarama

Zortzi urteren ondoren, Hiri Antolamendurako Plan orokorra osatu eta onartu zuten, otsailean, Leaburu-Txaraman. Luisa Uzkudun alkateak azaldu duenez, «zerotik hasita» egin behar izan dute plana. «Aurrez, baze goen plan bat, baina, duela 35 urte egindakoa zen eta legeak oso-oso zaharrak ziren». Geroz egindako planak, «plan txikiak» ziren, «momentuko korapiloak askatzeko egindakoak».

Plan berriak arlo guztietan ekarriko dituela adaketak adierazi du Uzkudunek, baina, bereziki, etxebizitzetan jarri dute pisu handiena. «Urte guzti haue tan, etxebizitza berriak egiteko lur sailak izendatu gabe eduki ditugu, eta horrek esan nahi du, urte haue tan, edo ez dela etxebizitzarik egin, edo egin direnak kontsolidatu gabe egin direla, hau da, guztiz legeztatu gabe».

Behin urbanizatu daitezkeen eremuak finkatuta, etxebizitzak egiteko proiektua dute esku artean. Duela sei urte, inkesta bat bete behar izan zuten herritarrek, babes ofizialeko etxebizitzaren interesik bazegoen ikusteko. «Udalekook hamabi etxebizitza egitea aurreikusten genuen, eta hamar lagunek eman zuten baiezkioa», azaldu du Uzkudunek. Ordutik denbora pasa da, eta legealdi berriarekin batera, berriro egingo dute inkesta, eskaririk baden ikusteko. «Emaizten arabera, segituan jarriko genuke martxan proiektua».

Leaburun, bi lursail aurreikusi dituzte etxebizitzak eraikitzeako, bata pribatua, eta, bestea, udalarena. Ostatuaren aldamenean pasatzen den errepidez bestalde dago lursail bat, eta, udalarena, parkearen ondoko eremua da. Azken horretan, babes ofizialeko etxeak eraikitzea aurreikusten dute, «gazteentzat erakargarriagoak» direlakoan.

Txaraman ere, beste lursail pribatu batean etxebizitzak eta atsedengune bat egiteko planak aurreikusi dituzte. «Txarama auzoari buruz, ez zegoen ezer idatzita, eta auzoa hiltzen joan da poliki-poliki. Zaharkituta geratu zaigu, utzia; azken batean, etxe-



Otsailean onartu zuten Hiri Antolamendurako Plan Orokorra, Leaburu-Txaraman. MAIER UGARTEMENDIA

Txarama biziberritzeko plana martxan jarri dute

I. Saizar Artola

Txarama auzoa indarberritu eta auzotarrei zerbitzu minimo batzuk eskaini ahal izateko batzorde bat sortu dute hainbat txaramarrek. Auzoa biziberritzeko proposamenak jaso eta udalean aurkeztu dituzte.

Denbora da Leaburu-Txaramako Udala Txarama auzoarekin kezkatuta zegoela. «Gauzak berritu izan ditugu, baina, beti, petatxuak izan dira, eta ikusten genuen Txaramak zerbait gehiago behar zuela», azaldu du Luisa Uzkudun Leaburu-Txaramako alkateak. Hortik pentsatu zuten auzoa bere «osotasunean» hartu behar zutela. Izan ere, Uzkudunen ustez, auzoa, «erreka ondolan dauden etxe batzuk» bezala ikusi izan da gaur egun arte, eta «ez zaio auzo izaera aitortu».

Hori horrela, Txaramako auzotarrak udalarekin bildu ziren iazko abendu hasieran, bilera bat egiteko. Bi alderdien kezkak

entzunda, Txaramako auzotarrak batzorde bat sortu zuten. Horko kide dira Mari Jose Alkorta eta Jose Luis Adurriaga, eta haiek azaldu dutenez, «hiru hila beteko epean, proposamen eta ideiak biltzen aritu gara». Txaramak bizirik jarrai dezan, ostegunero bildu dira, hiru hilabetez, aukera eta ideia berriak jasotzeko. Honako puntuak jaso dituzte, besteak beste: errepideko

abiadura, postontziak, zebrabi-deak, frontoia eta kirol instalazioak, argiteria, aparkalekua, atsedenekua, autobus geltokiak, kolektoreak, plaza berritzea eta baratzeak.

Behin proposamenak udalean aurkeztuta, arkitektoarekin jarri dira harremanetan, eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitz egingo dute diru laguntzetara aurkeztu ahal izateko.



Jose Luis Adurriaga eta Mari Jose Alkorta, Txaramako auzotarrak. I. SAIZAR

bizitza merke-merkeak diren eremu bilakatu da Txarama». Egoera horri buelta emateko lanean jarraituko dutela dio Uzkudunek.

BASERRIEI BEGIRA

Lehtasuna etxebizitza horiei eman diete, baina, etxe huts eta baserrietara begira ere jarri dira: «Leaburuko baserriak oso handiak dira familia bakarrak mantendu ahal izateko». Beraz, plan orokorrean jaso dute, 300 metro

Datorren legealdian, babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea aurreikusi dute parke ondoan

300 metro baino gehiago dituzten baserrietan, bi etxebizitza egiteko aukera izango da

baino gehiago dituzten baserrietan, bi etxebizitza egiteko aukera egongo dela, eta 700 metrotik gorakoek hiru etxebizitza eraikitzeako aukera izango dutela. Izan ere, etxebizitza asko hutsak daudelako hartu dute erabaki hori Uzkudunen arabera: «Hutsak, edo pertsona bat edo bi bizi diren etxe asko daude; gainera, gehienak, adin handikoak. Horrek esan nahi du, hemendik hogeitertara, Leaburu-Txaramako biztanleen erdia bizitzea posible dela».

Herriko jendeak etxebizitza berri bat izateko aukerarik ez duelako herritik alde egin behar izateak tristura eragiten dio Uzkuduni, «hori ezin da barkatu», dio. «Gure nahia, herriko jendeak, eta, batez ere, gazteek herrian geratzeko aukera izatea da, nahi bada baserriak berrituta, edo nahi bada etxebizitza berri bat erosita».

HAPOa onartzea, beraz, pauso garrantzitsua izan da udal taldekoentzat. «Udalean sartu gine nean lehtasun moduan jarri genuen, eta, kostata baina amaitu dugu», esan du alkateak. «Leaburu goitik behera doa, gazteak herritik badoaz, eta alarma moduko bat dugu; behin herritik joaten dena, ez baita bueltatzen».



Jende artetik pasa ohi dira abereak artzainaren gidaritzapean larrera sartu aurretik. Aurten, behiak izan dira larreratzen lehenak, behor eta ardien aurretik. I. SAIZAR

Ganadua larreetara

Larraitzen eta Komizarren larre irekiera ekitaldiak egin zituzten atzo; Aralarren eta Amasamendin pasako dute uda abelburuek eguraldi txarrak behera ekarrarazi arte

Irati Saizar – Jon Miranda
Larraitz / Komizar

Jai giroa nagusitu zen atzo Larraitzen. Aralarko Larre Irekiera Festa egin zuten. Urrira bitarte, 19.250 abere inguru elikatuko dira Enirio-Aralar Mankomunitateko belardi eta larreetan. Horietatik gehienak, 17.500, ardiak izango dira; 1.000, behiak eta 750, behorrak.

Goizetik arratsaldera iraun zuen festak eta ekitaldi nagusia 11:30ean egin zuten. Arantxa Ariztimuño Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendi eta Natura Inguruneke zuzendariak eta Jose Miguel Santamaria Enirio-Aralar Mankomunitateko presidentek hartu zuten hitza lehenik. Eta azken honek eman zizkion larreak irekitzeko giltzak Jojo

Goienetx Garaziko Mendietako Elkargoko lehendakariari. Horiekin batera, mankomunitateko udal herrietako ordezkariak eta sindikatuetakoko kideak elkartu ziren oholztan.

Horren ondoren, larreetara gerturatu eta Jon Zubizarreta Abaltzisketako alkateak suziria bota zuenean ireki zuen giltzaz langa Goienetxek. Horrekin batera, behi, behor eta ardiak txalo artean sartu ziren larreetara.

AMASAMENDIN ERE IREKIERA

2012an antolatu zuen lehen aldiz Amasa-Villabonako Udalak larre irekiera ekitaldia Komizarren. Ordutik, urtero ospatu izan dute Amasako ganaduzaleek festa, herritarrekin batera. 11 baserritarrek mendian ibiliko dute ganadua urtea amaitu bitartean.

Amasamendin zazpi sail dau-de eta txandaka ibiltzen dute horietan ganadua. Hiru buelta oso ematen dituzte zaldi, behor eta behiek. 50 zaldi eta 80 behi inguru bidali zituzten atzo mendira. Ardiak, Amasamendiko goi partean izaten dira, eta 800 buru maneiatzen dituzte herriko bost artzainek.

Ganaduzaleak izan ziren atzo protagonista Komizarren. Haientzako salda, pintxoak, sagardoa eta ardoa banatu zituen udalak, baita gerturatu ziren herritarrentzat ere. Geroz eta jende gehiago bertaraten da larre irekiera ekitaldira.

Gainera, aurten lehen aldiz, falkoneria erakustaldiak egin zituzten Komizarren eta hegazti-ekin argazkiak ateratzeko aukera izan zuten herritarrek.



Jojo Goienetx laborariak Aralarko larretarako langa ireki zuen unea. I.S.



Goian Larraitzen aritu ziren dantzariak eta behean Komizarrera larre irekiera ekitaldira gerturatutako jendea. I.S. / J.M.



Komizarren falkoneria erakustaldia egin zuten atzo goizean eta udalak hamaiketako eskaini zien ganaduzaleei. J.M.



Astearte arratsaldean egin zuten osoko bilkura, Gazteluko udaletxean. I. SAIZAR

Goikoetxearen alde elkartzeko deia egin dute ostiralerako

Andoni Goikoetxea gazteluarraren atxiloketaren ondotik, elkarretaratzea egingo dute Gazteluko plazan, ostiralean, 19:30ean

Irati Saizar Artola Gaztelu

Andoni Goikoetxearen atxiloketa salatzeke osoko bilkura egin zuten asteartean, Gaztelun. Atxiloketa eta espetxeratzea gaitzes-teaz gain, deialdia luzatu zieten herritarrei ostiralerako: eskualdeko hautetsi eta herritar guztiekin elkarretaratzea egingo dute Gazteluko plazan, 19:30ean.

Herritarraren espetxeratzea «konponbidearen eta bizikidetzaren aurkako eraso argia» izan dela adierazi zuen Gari Aranzabal Gazteluko alkateak. «Andonirekin egin dutena ez da kontu isolatu bat. Iraganeko atxiloketak, jazarpena eta errepresioa erreproduzitu nahi dira, euskal jendartean gehiengoak bestelako urratsak eskatzen dituenen».

Euskal Herriaren aurka hartutako erabaki politiko bat izan dela azpimarratu zuten, «gatazka armatuak utzitako ondorioen konponbidea eta nagusiki herri

honen burujabetza prozesua oztopatzeko asmoz». Oztupoak aipatzean, gogoan izan zituzten irailaren 16an epaituko dituzten beste 47 euskal herritar, tartean, bi eskualdeko, Ion Mintegiaga ibartarra eta Jesus Mari Aldunberri elduaindarra.

Herri bezala «urratsak ematea» dagokiela azaldu zuen, «herri gisa soilik lortu genezakeelako estatuari, eraso hauei eta etor daitezkeenei aurre egitea; izan kalean, izan lantegi zein ikastetxeetan».

Goikoetxeari animo eta babes osoa eskainiz amaitu zuten osoko bilkura. Eta bere senide zein lagunei elkartasuna eta laguntza guztia eskaini nahi izan zieten.

Apirilaren 24an sartu zuten espetxean gazteluarra eta zazpi urteko espetxe zigorra ezarri diote. Soto del Realgo (Madril) espetxean dago, behin-behinean. Bi hilabete egongo da bertan, eta ondoren litekeena da lekuz aldatzea.

Garaipenarekin egin du debuta Eneko Labakak

Garfe enpresarekin lehen partida jokatu zuen atzo, bikote Urruzola atzelari asteasuarra zuela

Imanol Garcia Landa Albiztur

Irabaziz hasi du bere ibilbidea Eneko Labaka pilotari albizturtarrak Garfe enpresan. Urruzola atzelari asteasuarrarekin batera 22-21 irabazi zion Santxo-Zabala bikoteari, Alesbesen jokaturako partidari. «Ematen du emaitza-zen bila propio joan garela, baina ez da horrela izan. Partida borrokatua izan da eta azken tantoa gure alde erori da», esan du Labakak. Partida «berezia» izan



Zabala, Santxo, epailea, Urruzola eta Labaka, partida hasi aurretik. GARFE

dela gaineratu du Labakak, lehen aldiz jantzi baitu Garferen elastikoa.

Bere debutaren egunean bi partida jokatzeari egokitu zitzaion

albizturtarrari, eta gainera, aurkari beraren kontra. Santxoren aurka lau eta erdian jokatu zuen Naiaran (Errioxa), eta 22-17 galdutako oraingoan.

Eskualdeko lau txirrindulariak, dominekin Espainiakoan

Erredakzioa

Pistako txirrindularitzako Espainiako Txapelketak jokatu dira orain berri Tafallan. Bertan eskualdeko lau txirrindularik parte hartu zuten Euskadiko selekzioa ordezkatzeko, eta guztiak itzuli ziren dominekin.

Junior mailako Naia Amondarain ibartarrak hiru domina lortu zituen. Horietako bi banakako probetan izan ziren, jazarpenean eta puntuazioan. Hirugarrena taldekako jazarpen proban lortu zuen, eta talde horretan ere parte hartu zuen Arene Etxarri adunarrak. Bigarren postua eskuratu

zuten, Madrilgo selekzioaren atzetik. Kadete mailan lortu zuten domina Amaia Astarloa tolosarrak eta Naroa Olano anoetarrak. Taldekako jazarpen proban parte hartu zuten eta bigarren postua lortu zuten, Asturiaseko selekzioaren atzetik.

Naia Amondarain gustura azaldu da lortu zituen emaitzekin. Tolosan jokaturako txirrindularitza proban erori egin zen, eta astebete geldirik egon ondoren parte hartu zuen Tafallan jokaturako txapelketan. Pistako denboraldia bukatu da eta orain errepidekoarekin jarraituko dute txirrindulariek.



BIZKAITARRAK GEHIAGO IZAN DIRA

5 Kirol txapelketa berriaren finala jokatu zen atzo Bizkaia frontoian. Ibarran bizi den 'Arria V.a'-k eta Jokin Eizmendi zarauztarrak, batetik, eta Aitzol Atutxa dimoztarra eta Inhar Urruzuno ondarroarra, bestetik, aritu ziren lehian. Aizkoran, harri-jasotzen, txingetan, ingudearekin eta trontzan aritu ziren. Bizkaitarrek irabazi zuten txapelketa, guztira 41.17ko denbora eginez; gipuzkoarrek 45.35ko denbora egin zuten. BASQUE SPORTS

Orain, lortutakoa sinestera



Aulkitik

Imanol Cabero

Tolosa CF, Euskal Liga

inork ez zuen esperoko horrelako zerbait lortu ahalko genuenik. Euskal Ligara igotzea izugarria izan zen, lehengo urtea ezin hobea. Aurtengoa, berriz, sinestezi-na. Lan guztiak saria du eta hau da nesken esfortzu guztien emaitza.

Entrenatzaile bezala pribilegiatu batzuk gara neska talde honen lana egiteagatik. Ez zaizkie gauzak erraz jartzen, baina ez du axola, beti hor daude dena emateko prest, eredu. Euskal Herri guztian aritu dira hobere-nak direla erakutsiz, eta 28 astez jokatzeko ibili eta gero, orain ospatzeko asteak datoz. Lortutakoa sinestea besterik ez zaigu gertatzen orain.

Apirilak 28, historiako geratuko den eguna. Orain arte inork lortu ez zuena lortzeko aukera.

Orain dela urte batzuk gutako

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Batel denboraldiari amaiera «izugarria»

TAKeko jubenil neskek batelen Espainiako Txapelketa eskuratu dute

Imanol Garcia Landa

Tolosalde Arraun Klubeko (TAK) jubenil mailako neskek Espainiako Txapelketa irabazi berri dute bateletan. «Bi astez pentsatuz Espainiako Txapelketan paper txukun bat egin genezakeela, eta entrenamendu on horien emaitzak ikusi dira», esan du Gorka Toledo entrenatzaileak. Gipuzkoako Liga eta Espainiako Txapelketa lortu dituzte neska jubenilek aurtengo denboraldian. «Proiektu honekin hasi ginenean, ez genuen pentsatzen horrelako emaitzak lortuko genituenik. Gehienbat jakinik TAKek oraindik irabazirik gabe zuela Espainiako Txapelketa, eta aurtan lehen aldiz lortu dugu. Beraz, ikustea bi bandera lortu ditugula denboraldian izugarria da».

Espainiako Txapelketan, larunbateko sailkatze estropadan beraien txanda nahiko erraz menperatu zuten, eta orokorrean denbora onena egin zuten. Igandean, finala «oso estua» joan zen. Aurkariak Orio eta Galiziako hiru batel ziren. Ontzi guztiak nahiko parean abiatu ziren eta lehen ziabogara antzeko denbo-



TAKeko jubenil neskek garaipena ospatzen podiumean. ATARIA

rak eginez iritsi ziren. Bigarren ziabogatik aurrera Vilaxoan, Orio eta TAKen arteko lehia bihurtu zen. Azken ziabogara TAKekoak iritsi ziren lehen, bi segundoko abantaila atereaz Vilaxoan eta Orio batelei. «Azkeneko luzean Orio pixka bat atzean geratu bazen, Vilaxoan ikusten genuen sartu eta sartu ari zela, eta azkenean apenas segundo bateko aldearekin lortu genuen irabaztea», esan du Toledok.

TAKeko beste batel batzuk ere izan ziren lehian Espainiako Txapelketan. «Kadete mutilek izugarrizko estropada egin zuten larunbatean eta A finalerako sailkatzea lortu zuten, eta hor bosgarren postua lortu zuten, izugarrizko denboraldiari amaiera emanez», azaldu du Toledok. Infantil mutilak eta neskek ere izan ziren lehian, eta

hauek ez zuten lortu A finalerako sailkatzea, eta B finalean bigarren postua egitea lortu zuten. «Orokorrean oso gustura gaude lortutako emaitzekin», esan du Toledok. «TAK bezalako klub baten zat Espainiako Txapelketan A finalera sartzea izugarrizko lorpena da, eta gure bi ontziek lortu zuten hori eta gainera bandera bat irabazi genuen».

Espainiako Txapelketarekin bukatu da batel denboraldia. Aurki traineruena hasiko da, eta bateletan aritu diren neska jubenil arraunlariak traineruan ere parte hartuko dute. «Gu harrobiko klub bat gara, eta etxeko jendearekin aritzen gara. Aurten jubenilek erakutsi duten maila ikusita, traineruan ariko dira. Beraientzako esperientzia polita izango da traineruarekin lehia-tzea», gaineratu du Toledok.

Traineruaren aurkezpenera joateko deialdia egin dute

Erredakzioa

Tolosaldeko Arraun Klubak (TAK) traineru denboraldiari ekingo dio, eta, iaz bezala, aurtan ere Tolosaldeko herritarrengana hurbilduko dute bere proiektua. «TAKentzat funtsezkoa da herritarrak proiektu honen parte sentitzea, guk eskualdeko proiektu gisa sentitu eta bizi baitugu. Gu guztion dena, ez soilik lau zoro zoragarrirena», adierazi dute arraun klubetik. «Bai, traineru honen guztia-

bueltan, izan tostan edo itzalean, jende mordo dago, baina gu guztiok eskualdeko proiektu bat bezala sentitzen dugu hau eta eskualdeak ere horrela sentitzea gustatuko litzazuke. Lehorreko eskualdea gara, barrukoak, mendien artean gaude, baina guk ere badakigu itsasoan arraun egiten».

Aurtan ere «amets horri» helduko diotela azaldu dute, eta trainerua zein traineruko kideak herritarrei aurkezteko bi ekitaldi antolatuko dituzte. Batetik, gaur

pintxo potea egingo dute Euskal Herri plazaren sarreran. Musiak girotuta, pintxoak eta tragoak eskainiko dituzte 18:30ean hasi eta 21:00ak arte. Larunbatean, traineruaren aurkezpena egingo dute Tolosako Trianguloa plazan, 12:00etan.

Tolosaldeko herritarrak bi ekitaldi horietara joateko deia egin dute TAKetik, «gu guztion izenean arraunean ariko diren arraunlariak, eta proiektua eza-gutzeko, eta, nola ez, proiektura batzeko».



Gregorio Mancisidor eta Patxi Monge. ATARIA

Brontzea ekarri dute Munduko Txapelketatik

Erredakzioa

Ravennan (Italia) ospatu dira Hegats Igeriketako Munduko Txapelketak. Igarondo Urpekoak taldeko hiru igerilari V2 mailan (45 eta 55 urteko igerilariak) lehiatu dira. Patxi Mongek brontzeko domina lortu du 100 metro ur gainekoan eta 4. postua 50 metro ur gainekoan. Gainera 50 metro apnea irabazi eta gero,

deskalifikatua izan da irteera txarra egiteagatik. Gregorio Mancisidor, berriz, 5. izan da 100 metro ur gainekoan eta 50 metro apnean, eta 50 metro ur gainekoan seigarren.

Jose Mari Zamora ur irekiko probetan aritu da. 3.000 metro-tan, bifins proban, 5. postua lortu du. Bere aldetik, Gregorio Mancisidorrek 9. postua lortu du proba berdinean.



Sari banaketaren ondorengo familia argazkia. ATARIA

Iturbe-Itoitz, Gipuzkoako xareko txapeldunak

Ametsa Pilota Elkartea

Beotibar 2 taldeko Oier Iturbe eta Aitor Itoitz izan dira Gipuzkoako gazte mailako xare txapelketako irabazleak. Ametsa 3 taldeko Matxalen Mendizabal eta Gorka Huitziri 35 eta 29 irabazi zieten Irurako Ametsa trinketeen jokatutako finalean.

Faboritoak Iturbe eta Itoitz ziren, baina, hasieran, Ametsa 3ko bikotea sendo eta indartsu hasi

zen, 10-3 aurreratuz. Beotibar 2ko bikotea, poliki-poliki, beren maila ematen hasi zen eta partidaren erdialdera berdintzea lortu zuen, ondoren 4-5 tantotako aldea hartuz. Hortik amaiera arte, aldeari eutsi zioten irabazleek, galtzaileek inoiz amore eman ez zuten arren. Amaieran, Gipuzkoako Federazioko ordezkariak eta Ametsa Pilota Elkarteko ordezkariak sariak banatu zituzten.



OSTEGUNA, 2019KO MAIATZAK 2
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Edoñ, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



OSTEGUNA 02

AGENDA

Deialdiak

Altzo. San Isidro eguneko afaria maiatzaren 18an egingo dute, eta afaria joan nahi dutenek izena eman beharko dute hilaren 16a baino lehen. Izena emateko udaletxeko 943 65 24 13 edo Ostaturko 943 65 22 62 telefono zenbakietara deitu beharko da.

Lizartza. Hiltzaldia: *Expolio Gara*. Hizlaria: Ariane Kamioa. 19:30ean, Herri Ostatuan.

Tolosa. Tolosaldeko Arraun Klubak pintxo-potea antolatu du. 18:30etik 21:00etara bitarte, musika, pintxoak eta edaria izango dira, Tolosako Eus-kal Herri plazan.

Tolosa. Zine foruma: *El amor y la muerte*, Leidor antzokian. Bi saio: 19:15ean eta 21:45ean. Jatorrizko bertsoan, gaztelazko azpidatziekin. Enrique Granados konpositore-ari buruzko dokumentala, Arantxa Agirrek zuzendua.

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza.

12:00-13:00. Entzuteko jaioak.

Musika saioa.

16:00-18:00. Zebrabidea.

18:00. Goizeko saioen onena.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

16:30. Bakearen eta Berradiskidetzaren aldeko XV Sariak.

17:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

21:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

22:00. Urrutiajunbe.

22:30. Ajoarrieroa (Zuriñe Hidalgo).

23:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Eguneko.

Etxebeste Elozegi, J. M.
Gernikako Arborearen lorategiak, 3.
Telefonoa: 943 65 10 40.

Gauekoa. Azpiroz Galarza, L.
Amaroz auzunea, 9.
Telefonoa: 943 67 51 18.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Giro motela. Ipar-mendebaldeko haizearen eraginpean egongo gara egun osoan, eta horrekin hodei tapaki handia izango dugu gaine. Ez da zerua erabat estalirik egongo, baina zerua nahiko ilun agertuko da. Hodei hauek tarteka euri langarra edo euri zaparradaxka batzuk utziko dizkigute, nahiz eta, litrotan oso-oso gutxi pilatuko den. Termometroak nabarmen egingo du behera eta eguneko erdiko orduetan 14-16 gradutan joko du goia.



Bihar. Giro fresko eta tris-tea. Ipar-mendebaldeko haizearen eraginpean jarraituko dugu eta horrekin zeruan berriz ere hodeiak gailenduko dira; egun osoz, nahiz eta, tarteka ostateren bat edo beste ikusi. Hodei hauek euria utziko digute, batez ere, arratsalde-gau partean non orduan tarteka mardul botako duen. Termometroak koskatxo bat behera egingo eta ez da 13-15°-tik pasako.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Pilotalekuan 110 lagunentzat prestatu zuten bazkaria, baliarraindarrek. E. MAIZ

110 lagun elkartu ditu txekor jateak

Eneritz Maiz Etxarri Baliarrain

Maiatzaren Lehena baliatu ohi dute Baliarrainen txekor jatea egiteko, eta atzokoan ere, ez zuten hutsik egin. 110 lagun bildu ziren pilotalekuan.

Bezperatik erretzen jarritako txekorra prest zegoen eguerdiko bazkarirako. Herriarren artean erretzen dute, txandak eginez. Eta behin bazkaltiar guztiak pilotalekua betez eseri ostean, zerbitzari lanak ere herriarrek egin dituzte.

Herriarrez gain, hutsik egin gabe, kanpotik ere gerturatzen dira Baliarrainera bazkaltzera. Aurten, iazko kopurua gainditu



Jantoki itxura hartuagatik gaztetxoek pilotan ibiltzeko aukera izan zuten. J. OZAITA

dute. «Ederra» zegoela txekorra adierazi zuten bertaratutako batzuek, bazkaltzen ari ziren bitartean.

Bazkariaren gain, argazki erakusketaren ere jarri zuten ikusgai baliarraindarrek erabilera antzeko aretoan.

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Argazkia
bi egun lehenago
ekarri mesedez



Atarikideentzat **bi sarrera** ditugu

DELTECO GBC - BASKONIA
partida ikusteko
2 sarrera

Maiatzaren 3an,
21:30ean, Ilunben.

zozketak

Atarikideentzat **bi sarrera** ditugu



'VAGERA Herri bat'
ikuskizun
solidariorako 2
sarrera bikoitz

Maiatzaren 3an, 22:00etan,
Olaederra kiroldegian.

Zozketetan parte hartzeko Osteguna 13:00ak arte: 943 65 56 95 edo www.ataria.eus